



Esp. zk.: SUBV\_CON\_COMPET/2021/16

**KIROL ESKOLEI 2020-2021eko DENBORALDIAN DIRULAGUNTZAK NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEAN EMATEKO DEIALDIA**

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) letran zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. **Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri.** (2006ko 21. NAO, otsailaren 17koan, argitaratua).

**A. ENTITATE DEITZAILEA:**

<b>1. Administrazio deitzailea:</b>	IRUÑEKO UDALA
<b>2. Organo emailea:</b>	Gizarte Zerbitzuetako, Komunitate Ekintzako eta Kiroleko Zinegotzi Ordezkarria
<b>3. Alor kudeatzailea:</b>	Komunitate Ekintza, Garapenaren aldeko Lankidetzeta eta Kirola
<b>4. Instrukzio-organoa:</b>	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa

**B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:**

**1. Deialdiaren xedea:**

**Denboraldiaren hasieran 6 eta 14 urte bitarteko kirolariak (2006-2014 bitartean jaiotakoak, biak barne) partaide dituzten "Oinarrizko Kirol Eskolen" antolaketa diruz laguntzea 2020-2021eko denboraldian. Kirol minoritarioetan, adin-tarte hori, kasu jakin batzuetan, 15 urtera bitarte zabalduko da (2005. urtea).**

**2. Deialdiaren helburua:**

"Oinarrizko Kirol Eskolak" antolatuta, Lehen Hezkuntzako eta DBHko hezkuntza-etapetan eskola-ordutegitik kanpo kirola egitea sustatzen duten egitura tradizionalen sostengua bultzatuko da, dela Iruñeko kirol federatutik bultzatuta, dela kirol federatura bideratuta. Oro har, kirol jarduera federatuak aukera emanen du honako hauek lortzeko: a) elite-kirolerako progresioa kirol-errendimendu nabarmenagoa duten kirolarientzat, b) denbora jakin eta murriztu batez mantentzea kirol-lehiaketan interesak edo motibazioak dituzten pertsonak, eta c) pertsona batek astean zehar kirol kantitate handiagoa egitea hala neurrizkoa nola bizia, aisiako kirol-praktikarekin egiten denarekin alderatuta.

**3. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak, betekizunak eta epeak:**

a) Iruñeko udal-mugartean egin beharko dira, edo, beste leku batean egiten badira, izena eman dutenen % 80k gutxienez Iruñean erroldaturik egon beharko dute. Ehuneko hori lortuko ez balitz, eta bakarrik Iruñeko udalerrian egindako jardueren kasuan, eskaintzak diruz laguntzen ahalko dira, baina dirulaguntzaren zenbateko kalkulatzeko ez dira kontuan hartuko erroldatuta ez dauden parte-hartzaileak.

b) Nafarroako Kirol Federazioek soilik antolatu ahal izanen dituzte, usadioz Iruñeko kirol-jarduera federatua antolatu eta koordinatzeko izan duten zeregina kontuan hartuta. Salbuespenez, Oinarrizko Kirol Eskolen kasuan, Kirol Federazioen bat ez bada deialdira aurkezten –Nafarroako Kirol Egokituen Federazioa salbu, beste deialdi bat izanen baitu horretarako–, beste kirol-entitateren bat aurkezten ahalko da, gutxienezko nahitaezko baldintza hauek beteta: a) entitate bat bakarrik aurkeztu ahal izanen



da, deialdian kirol ofizial jakin batean aurkeztu den entitate bakarra bada; edo entitateen Elkarte modura, kirol jakin batean bi entitate edo gehiago aurkezten badira, eta b) izan ditzakeen taldeetatik harago, Iruñeko leku eta entitate anitzetan kirol modalitate ofizial bereko ahalik eta talde gehien antolatze eginkizuna bere gain hartuko du –dagokion Nafarroako Kirol Federazioaren oniritziarekin bada hobe–, bai eta haietarako oinarritzkoak diren giza baliabideen, baliabide materialen eta instalazioen antolaketa koordinatzeko ere.

c) 2020-2021eko denboraldiaren hasieran 6 eta 14 urte bitarte dituzten kirolarientzat izanen dira, hots 2006tik 2014ra bitarte (biak barne) jaiotakoentzat. Adin-tarte horretan sartzen ez den kirolari oro dirulaguntza honen xedetik kanpo geldituko da, salbu eta kirol minoritarioen kasuan, zeinetan 2005ean jaiotako kirolariak ere aurkezten ahalko baitira, betiere entitate bakoitzak aurkeztu dituen 2014tik 2006ra jaiotako eta dirulaguntzaren xede diren kirolarien guztizkoaren %10 gainditzen ez badute. Deialdi honen ondorioetarako kirol minoritariotzat joko dira 2020an Nafarroan 1.500 federazio-lizentzia baino gutxiago dituzten kirolak –Nafarroako Kirol eta Gazteriarren Institutuak emandako datu ofiziala–: badminton, xakea, errugbia, mahai-tenisa, boleibola, piraguismoa eta karatea, besteak beste.

d) Dirulaguntza honen xede izan daitezkeen gastuak finantzatzeko kuota ezin izanen da 45,00€-tik beherakoa izan pertsonako, 8 hilabeteko eta astean 3 orduko. Kuota horiek beherantz hainbanatu ahal izanen dira, deialdiko S.1 puntuan aurreikusitakoarekin bat.

e) Dirulaguntza “Emandako eskola-orduak” irizpidearen arabera kalkulatu ahal izateko (H letra), kirol bakoitzerako ratio/modulua ondokoa izanen da:

- 25eko ratioa: eskubaloia, golfa, padela, ehiza, saskibaloia, mendi-kirolak eta eskalada, futbola eta areto-futbola.
- 20ko ratioa: judoa, txirrindularitza, igeriketa, atletismoa, tiro olinpikoa, hipika eta gimnasia.
- 15eko ratioa: arku-tiroa, herri kirolak, euskal pilota, piraguismoa, xakea, espeleologia, tenisa, errugbia, triatloia, patinajea, taekwondo eta karatea.
- 12ko ratioa: aurrez aipatu ez diren Nafarroako gainerako kirol ofizialetarako.

Aurreko ratio balioak kirol bakoitzeko dirulaguntza kalkulatzeko baino ez dira erabiltzen deialdi honetan, baina ez dira ezinbestean bat etorri behar eta ez zaizkie antolatzaileei inposatzen haien eskolen benetako ratioak eratzeko. Eskola horietan nork bere antolakuntza-irizpideak jarraituko ditu. Egungo egoeran, gainera, COVID-19aren ondorioz indarrean den araudira egokituta egonen dira.

### **C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:**

**1. Deialdiaren guztizko zenbatekoa, gehienez, kreditu erabilgarrien barruan: 206.000 €**

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

**2. Aurrekontu-partida:** 71/34100/482090

**3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak:** Entitate bakoitzari emanen zaion diru-kopuruak ezin izanen du aurkeztutako proiektuaren aurrekontuaren defizitaren % 100 gainditu, eta, edonola ere, 55.000,00 €-ko banakako muga ezarri da Federazio edo entitate bakoitzeko (Federaziorik ezean).

**4. Hainbanatzeko aukera:**

BAI  EZ

Baiezkoa bada, nola hainbanatu:

Murriztapeneko bi hainbanaketa egingen dira: lehena, eskaera guztiak bakoitzari dagokion H letrako irizpideak jarraituta ebaluatu ondoren, guztizkoak esleitutako gehieneko aurrekontua gainditzen duenean. Hainbanaketa proportzionalki aplikatuko zaie onartuak izan diren eskaera guztiei. Bigarrean, eskabide



## NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

batzuetan potentzialki kendu daitezkeen kopuruak proportzioan banatuko dira kasuan kasuko taldeko gainerako eskabideen artean, betiere gainditu gabe hala banakako gehieneko kopuruak nola jardueraren defizita; beraz, behar beste hainbanaketa egiten ahalko dira.

**5. Hainbat urtetarako deialdia:**  BAI  EZ

Hainbat urtetarako deialdia izanez gero, hainbat urtetako gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

**6. Urtekoak:**

Aurtengo zenbatekoa:	206.000 €	2. urtekoa ( )	€	4. urtekoa ( )	€
1. urtekoa ( )	€	3. urtekoa ( )	€		

### D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

#### 1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den eta egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izan daitezke onuradun, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta atal honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak:  BAI  EZ

1. Legearekin bat eratuta egotea eta dagokien Erregistroan izena emanda izatea, eskabidea aurkezteko mugaegunean, betiere indarra duten legeekin bat baldintza hori eskatzen ahal bada. Entitateen Elkarteen kasuan, elkarteak eratzen duten entitate guztiek banan-banan bete beharko dute aurreko betekizuna.

2. Iruñean edukitzea taldearen egoitza soziala nahiz zerga-egoitza. Entitateen Elkarteen kasuan, elkarteak eratzen duten entitate guztiek banan-banan bete beharko dute aurreko betekizuna.

3. Irabazi asmorik gabekoa izatea.

4. Kirol-entitateen Elkarteek eginiko eskaeretan lankidetzak hitzarmena aurkeztu beharko da, deialdi honetako I. Eranskineko ereduarekin bat.

5. Administrazio-bideko zehapen irmorik jaso ez izana 2020-2021eko denboraldian jarraian aipatzen diren legeetan "oso astun" gisa tipifikatutako arau-hausteengatik:

o 19/2007 Legea, uztailearen 11koa, Kirolean egon daitekeen indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkakoa.

o 15/2001 Foru Legea, uztailearen 5koa, Nafarroako Kirolari buruzkoa.

o 2/1989 Foru Legea, martxoaren 13koa, Ikuskizun publikoak eta aisia-jarduerak arautzen dituenak. Aipatutako baldintzak betetzen ez dituzten eskabideak ez dira onartuko.

Dirulaguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen:

BAI  EZ



**2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla:** Deialdi honen G.4) puntuari esker diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

**E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK:**

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 11. artikuluan eta letra honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

BAI  EZ

**Dirulaguntzaren xede diren kirol-eskaintzek ez dute izen ofizialean eramanen "udal" izenlaguna, ez baitira Udalarenak. Hala ere, jarduera bakoitzari emandako izenaren testu-lerro berean, jardueraren eragin sozialen inguruan entitate bakoitzak hartutako konpromiso boluntarioei buruzko sinbolo txiki edo etiketa informatibo batzuk sartu beharko dira (H.2 puntua). Sinbolo edo etiketa horiek herritarrei informazioa ematekoak izanen dira, eta jardueren izenen ondotik jarri edo kendu beharko dira entitatea [www.pamplona.es/temas/deporte](http://www.pamplona.es/temas/deporte) webgunean argitaratutako zerrenda eguneratuetan sartzen den edo ez, horren arabera. Orri horretan deskargatzen ahalko dira, baita ere, aipatu sinbolo horiek. Iruñeko Udalak publikoki hedatzen ahalko ditu, egoki jotzen dituen bideetatik, etiketaren bat jaso duten berdintasunari buruzko proiektuak, betiere arlo horretan jardunbide hobegoen ereduak ikusarazte aldera.**

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea eta hedapena eman beharko dizkiote dirulaguntzaren xede diren jarduera edo proiektuen udal-finantzaketaren izaera publikoari. Horretarako:

- Komunikazio edo publizitate idatzi zein grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan) Udalaren logotipoa txertatu beharko da, eta honako legenda hau: "Laguntzailea: Iruñeko Udala". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitatean lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da"
- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatutako beste edozein gauza edo produktutan Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez bada betetzen dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman eta horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 29.4 artikuluekin bat:  BAI  EZ

Xede-epea:

**F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:**



Proiektuan aldaketak egiteko aukera:  BAI  EZ

**G. ESKAERAK NON ETA NOIZ ARTE AURKEZTU:**

**1. Eskaerak aurkezteko tokia:**

Eskaerak telematikoki aurkeztu beharko dira, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoa ([www.pamplona.es](http://www.pamplona.es)) argitara emandako "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoentzat" delako izapidearen bidez. Izapide horrek barne hartzen ditu deialdi honen G eta T letretan aipatutako agiriak.

**2. Eskaerak aurkezteko epea: Eskaerak aurkezteko epea deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da, eta 2021eko ekainaren 30era bitarte iraunen du.**

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

**3. Eskaerak eta agiriak nola aurkeztu:**

Eskaerak eskabidearen bidez egin beharko dira, ala PDF formatuko (aurkezpen telematikorako) eskabidez, interesdunak edo dirulaguntza eskatzeko ordezkapen nahikoa edukita ordezkapen horren gaineko erantzukizunpeko adierazpena egin duen pertsonak sinaturik, betiere "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoentzat" izapiderako aurreikusitako jarraibideekin bat.

Ez da beharrezkoa izanen deialdi honetako G.4) puntuan aipatutako agiriak aurkeztea, baldin eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikularekin bat, jarduten duen Administrazioak jada bere eskuetan baditu edo beste ezein Administrazioak egin baditu, salbu eta eskatzaileak edo kasuan kasuko ordezkariak ez badio Iruñeko Udalari baimenik ematen informazioa dagokion administrazio publikotik eskuratzeko.

Eskaera batek ez baditu deialdi honetan ezarritako betekizunak betetzen edo agiriak aurkezten, edo bestela, ez badio Iruñeko Udalari baimenik ematen agiriok zer administrazioak egin eta hartatik eskuratzeko, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean akatsa zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere alde aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusitakoarekin bat.

Dirulaguntza jasotzeko eskaera aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

.

**4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:**

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak. Honako hauek frogatzen dituzten egiaztagirak: entitatea legeekin bat eraturik dagoela, entitatearen egoitza eta zergetarako helbidea egiaztatzen dutenak, eta eskaera aurkezten den datan entitatea legeekin bat eraturik dagoela.

Ez da beharrezkoa izanen hemen zehaztutako agiriak aurkeztea baldin eta Iruñeko Udalaren edo beste administrazio publiko baten eskuetan badaude, betiere eskatzailea ez bada Iruñeko Udalak agiriak ofizioz eskatzearen aurka agertu.



## NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

b) Erantzukizunpeko adierazpena, izapide telematikoan emandako jarraibideekin bat, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari dagozkien betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko agiriak.

Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluekin bat, ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio eskudunarekiko betebeharrak, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du, betiere dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin baino lehen. Salbuespenez, eta Iruñeko Udalak ezin izanen balitu agiriok eskuratu, interesdunari eskatzen ahalko zaio aurkez ditzala.

Interesduna Udalak egiaztapen horiek ofizioz egitearen aurka agertuz gero, administrazio eskudunek emandako egiaztagiria aurkeztu beharko ditu, dirulaguntza eskatzean egindako aitorten horretan jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzeko.

d) Deialdiak aurreikusten duenean eskatzailea nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen talderen bat izateko aukera –horiek publikoak zein pribatuak izaki–, eskaeran berariaz adierazi beharko da taldeko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu behar da, eta ahalorde askietsia eman behar zaio elkarteak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen bat, non adieraziko baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. Adierazpena izapide telematikoan emandako jarraibideekin bat egingen da.  BAI  EZ

f) Memoria bat, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duena.

Deialdi honetako P letran aurreikusitako edukia izanen du memoriak. .

g) Deialdi honetako P letran eskaera-mota bakoitzerako aurreikusitako gainerako agiriak.

Telematikoki egiten ez diren izapideetarako, agiriak jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo, bestela, indarreko legeekin bat kautoak diren kopiak.

Telematikoki egiten diren izapideetarako, deialdian parte hartzen duen entitateak aitortu beharko du emandako informazio guztia egiazkoa dela, badituela informazio hori egiaztatzeko agiriak, jatorrizkoak edo kautotuak (besteak beste, tituluak, ziurtagiriak eta bestelako agiri ofizialak), eta horien kopiak aurkezten dituela. Halaber, bere gain hartuko du informazio horren egiazkotasunaren erantzukizuna, bai eta hura faltsua izatera, horrek ekar ditzakeen kalte-galerena ere.

### H. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:

Eskaerak baloratzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

H.1. 8.- ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK.

H.1.1. Jaso daitekeen gehieneko dirulaguntza kalkulatzeko formula:

$$[(A + B + C) - (N * X)]$$



A: H.1.2 irizpidea aplikatzean lortutako zenbatekoa, eta H.2. irizpidea aplikatzean izan daitezkeen gehikuntzak  
B: H.1.3. irizpidea aplikatzean lortutako zenbatekoa  
C: H.1.4. irizpidea aplikatzean lortutako zenbatekoa  
N: Parte-hartzaileen kopurua, guztira  
X: 45,00 €: izen-emate kuotarako erreferentziatzko diru-sarrera, parte-hartzaileko eta astean hiru orduko eta 8 hilabeteko ikastaroetarako, jarduera bakoitzeko kuota zehatza zein den kontuan hartu gabe. Beherantz hainbanatzeko aukera dago, deialdi honen S.1 puntuan aurreikusitakoarekin bat.

#### H.1.2. Emandako eskola-orduak

Emandako eskola-ordu bakoitza (oinarrizko prezioa) diruz lagunduko da gehienez ere honako zenbatekoekin:

##### H.1.2.1. Oinarrizko prezioak:

- 1. kategoria "Lehen Hezkuntza": 6 eta 12 urte bitarteko kirolari bakoitzeko (2014-2009, biak barne) 16,00 euro (sexua kontuan hartu gabe). 2020-2021eko denboraldiaren hasieran, 2015. urtean edo ondorengoetan jaiotako kirolaririk ez da diruz lagunduko.

- 2. kategoria "DBH": 12 eta 14 urte bitarteko kirolari bakoitzeko (2008-2006), nesken portzentaje orokorra % 50etik beherakoa bada, edo % 70etik gorakoa, kategoria horretako guztizko kirolarien gainean: 16,00 euro. Kategoria honetan 2005. urteko kirol minoritarioetako kirolariak sartzen ahalko dira, deialdi honen B.3 puntuan aurreikusitakoarekin bat.

- 3. kategoria "DBH": 12 eta 14 urte bitarteko kirolari bakoitzeko (2005-2007), nesken portzentaje orokorra % 50 eta 70 bitartekoa bada kategoria horretako guztizko kirolarien gainean: 19,00 euro. Kategoria honetan 2005. urteko kirol minoritarioetako kirolariak sartzen ahalko dira, deialdi honen B.3 puntuan aurreikusitakoarekin bat. Aurreko kategorien oinarrizko prezioak irakaskuntza lanagatik emandako udal-dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko dira, baina ez dute zertan bat etorri behar, eta ez zaizkie antolatzaileei ezartzen, ordu bakoitzeko oinarrizko prezio handiagoak zehazteko.

Hiru kategorietako oinarrizko prezioak, salbuespen gisa, 2 € igo dira deialdi honetan, aurreko urteekin alderatuta parte hartzen duten kirolarien murrizketa orekatzeko, COVID-19 araudia aplikatzeak kopuru hori murriztea eragin baitu.

##### H.1.2.2. Emandako eskola-orduak

Eskola-orduko dirulaguntz =  $\sum$  Dirulaguntza Kat i / Dirulaguntza Kat i = (N/R\*H) \* Op

N: Parte-hartzaile kopurua, guztira, 1etik 3ra bitarteko i kategoria bakoitzeko.

R: Kirolaren araberako ratioa/modulua (deialdi honetako B.3.e atalarekin bat).

H: 8 hilabetez eta astean hiru orduz, gehieneko eskola-orduak, moduluko: 96. Balio hori beherantz hainbanatu ahal izanen da, deialdiko S.1 puntuan aurreikusitakoarekin bat.

Op: Oinarrizko prezio aplikagarria



#### H.1.3. Eskolen koordinazioa:

Eskolen koordinazioa entitatearen parte-hartzaile kopuru osoaren arabera diruz lagunduko da, aurreko atalean aurreikusitako 1, 2 eta 3 taldeetako kirolari guztiak batuta.

7. kategoria: 1.050 parte-hartzaile baino gehiago: gehienez 1983,34 €
6. kategoria: 875 eta 1.050 parte-hartzaile bitarte: gehienez 1.818,05 €.
5. kategoria: 700 eta 874 parte-hartzaile bitarte: gehienez 1.652,78 €.
4. kategoria: 525 eta 699 parte-hartzaile bitarte: gehienez 1.487,50 €.
3. kategoria: 350 eta 524 parte-hartzaile bitarte: gehienez 1.322,22€.
2. kategoria: 175 eta 349 parte-hartzaile bitarte: gehienez 1.156,94 €.
1. kategoria: 70 eta 174 parte-hartzaile bitarte: gehienez 991,67 €.
0. kategoria: 70 parte-hartzaile baino gutxiago: 0 €.

Kategoria guztietako parte-hartzaileen tarteak, salbuespen gisa, % 30 murriztu dira deialdi honetan, aurreko urteekin alderatuta parte hartzen duten kirolarien murrizketa orekatzeko, COVID-19 araudia aplikatzeak kopuru hori murriztea eragin baitu.

#### H.1.4. Kirolerako berariazko materiala eta COVID-19 materiala eskuak garbitzeko.

Eskolako kirol modalitate bakoitzerako berariazko materiala eta eskuak garbitzeko COVID-19 materiala erosteko dirulaguntza ematerakoan, entitate bakoitzeko parte-hartzaile kopuru osoa aintzat hartuko da, H.1.2. puntuaren aurreikusitako 1, 2 eta 3 kategorietako kirolari guztiak batuta, 10 parte-hartzaileko gehienez ere 50,00 euroekin.

Material horren ezaugarriak deialdi honetako L letran aurreikusitakoak izanen dira ezinbestean.

#### H.2. BERDINTASUNEN BI EKINTZEZ OSATUTAKO BORONDATEZKO PROIEKTUA

Atal honetan aurreikusten direnen artetik berdintasunaren aldeko bi ekintzez osatutako borondatezko proiektua gauzatzen duten entitateei, H.1.2. puntuarekin bat, 1,00 € igoko zaie emandako eskola-ordu bakoitzeko oinarritzko prezioa.

Borondatezko proiektua osatuko duten berdintasuneko bi ekintza horiek ondoren jasotzen direnen artean aukeratuko beharko dira ezinbestean. Denboraldi honetan udal-dirulaguntzen deialdi honen edo beste batzuen bidez diruz lagundutako jardueren kasuan, proiektu bat aurkezten ahalko dute jarduera bakoitzeko, eta ezin izanen dute ezin berdintasun-ekintza erabili bi jardueratan edo gehiagotan aldi berean, horrek ez badakar berekin berariazko eduki berritzaile eta berezia gehitzea.

##### H.2.1. Berdintasun-ekintzak

- 2019-2020ko denboraldiarekin alderatuta, azpi-ordezkatuta dauden irakaskuntza, entrenamendu edota koordinazio teknikoko eginkizunak dituzten entitatearen estamentu teknikoko pertsonen federatu-lizentziak gutxienez % 6 handitzea.

Kolektibo bat entitate batean azpi-ordezkatutzat joko da haren ordezkaritasuna entitatearen estamentu tekniko horren guztizko federatu-lizentzien % 35etik beherakoa denean.

- Marketin-estrategia orokor bat txertatzea Kirol Eskolan, berariaz zuzendua beren sexua edo bestelako baldintzatzaile pertsonalak direla-eta kirol, ekitaldi edo jarduera horretan tradizionalki azpi-ordezkatuturik egon diren pertsonak bereganatzera. Estrategia hori behar bezala dokumentatu beharko da, inplementazioan lorturiko emaitzekin batera, eta publiko egin beharko da.





- Material didaktikoa prestatzea, editatzea eta argitaratzea (ISBNarekin) irakasle ariko diren langile teknikarientzat, non berariaz eta modu adierazgarrian landuko diren berdintasunarekin eta hezkidetzarekin loturiko kirol alderdiak. Material horiek etengabeko hedapena, ikusgarritasuna eta presentzia eduki beharko dituzte entitatearen berezko komunikazio bitartekoetan (webgunea eta beste).

### **I. ESKAERAK EBALUATZEKO BALORAZIO-BATZORDEA:**

Eskaerak ebaluatzeako, balorazio-batzorde bat eratuko da, jarraian aipatutako hauek osatua:

<b>Batzordeburua:</b>	María Caballero Martínez, Gizarte Zerbitzuetako, Komunitate Ekintzako eta Kiroleko Zinegotzi Ordezkarria / Ordezkoa: Fernando Aranguren Reta, Kiroleko Zinegotzi Berezia.
<b>Batzordekideak:</b>	
<b>1.</b>	Concepción Mateo Pérez, Komunitate Ekintzako, Garapenaren aldeko Lankidetzako eta Kiroleko Alorreko zuzendaria. Ordezkoa: Aurora Mendía Leache, Komunitate Ekintzako, Garapenaren aldeko Lankidetzako eta Kiroleko Alorreko idazkari teknikoa.
<b>2.</b>	Daniel Martínez Aguado, Jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzietako graduduna. Ordezkoa: Alorreko beste teknikari bat.
<b>3.</b>	Nacho Arbeloa Freyre, Erdi-mailako teknikaria, Kirol Zerbitzua zerbitzura atxikia. Ordezkoa: Alorreko beste teknikari bat.
<b>Idazkaria:</b>	Ángela Sanz Rives, Zuzenbidean lizentziaduna, kirol arloan atxikia. Ordezkoa: beste legelari edo Zuzenbidean lizentziadun bat.

### **J. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENAREN JAKINARAZPENEA:**

#### **1. Prozeduraren instrukzioa:**

Instrukzio-organoak eskaeren aurre-ebaluazio bat eginen du, eta, hori abiapuntu hartuta, txosten bat, non egiaztatuko baita eskura daukan informazioaren arabera ondorioztatzen dela ezen pertsona zein entitate onuradunek halakoak izateko bete behar diren baldintza guztiak betetzen dituztela. Espedientea balorazio-batzordeari helaraziko dio, eskaerak ebalua ditzan, deialdi honen H) letran aurreikusten diren balorazio-irizpide objektiboen arabera.

Balorazio-batzordeak proposamen-txosten arrazoitu bat eginen du, ebaluazioaren emaitza zehazteko. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

**2. Ebazteko eta jakinarazteko epea:** Ebazti eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izanen da, gehienez ere.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaerak ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta pertsona edo entitate eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

#### **3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:**

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna:  BAI  EZ
- Tramitatze eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna:  BAI  EZ
- Epea kontatzeko beste sistema bat:

Behin prozedura ebazteko gehieneko epea berariazko ebazpenik eman gabe igarota, eskaera ezetsizat joko da.



**K. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:**

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra:  BAI  EZ

Nafarroako Aldizkari Ofiziala eta Iruñeko Udalaren Egoitza elektronikoa.

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

**L. DIRULAGUNTZEN XEDE DIREN GASTUAK:**

**1. Dirulaguntzen xede izan daitezkeen gastuen zehaztapena:**

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira dirulaguntzen xede den jarduerarekin ez bairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen L.2) puntuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek diruz laguntzen ahalko dira:

L.1.1. Emandako eskola-orduak, talde bakoitzeko 96 ordu gehienez ere.

L.1.2. Jardueraren koordinazioa.

L.1.3. Kirolerako berariazko materiala eta COVID-19 materiala eskuak garbitzeko.

Kirol bakoitzerako berariazko materiala eskuratzeko, material-elementu bakoitzeko 100 €-ko gastu-muga ezarrita (zergak kanpo).

Eskuak garbitzeko COVID-19 materiala erosteko, entrenamenduetan zehar Kirol Eskoletan parte hartzen duten irakasleek eta ikasleek entrenamenduetan eskuak garbitzeko erabilitako gel hidoalkoholikoak eta papera egozten ahalko dira bakarrik.

Era berean, epigrafe honetatik edo beste batzuetatik kanpo geldituko dira honako hauek: a) ordenagailuak eta inprimagailuak erostea; b) informatika-material agorgarria erostea; c) bulegoko materiala erostea; d) autoak edo motozikletak erosi, mantendu edo amortizatzea; e) programa informatikoak; f) liburu, aldizkari edo bestelako argitalpenak, inprimatuak edo elektronikoak, kirolekoak edo beste esparruetakoak; g) osasun- eta mediku-zerbitzuek eragindako gastuak; h) desfibriladoreak; i) ekitaldietako sariak eta opariak, eta j) botika-kutxarako materiala.

Kirol zehatz batean aritzeko berariazko kirol-materiala deialdi honetan diruz laguntzen ez diren taldeek edo kirolariek ere erabiliz gero, dagokion ehunekoa justifikatuta eta arrazoituta bereizi beharko da eskaeran.

L.1.4. Deialdi honetako H.2 puntuan aurreikusitako proiektuari dagozkion berdintasun-ekintzak.

Entitateei berariazko gastua ekartzen badiete, behar bezala justifikatu eta arrazoitu beharko dira eskaeran. Bestelako berdintasun-ekintzek edo gizarte-jarduerak eragindako gastuak epigrafe honetatik kanpo geldituko dira.

L.1.5. Kontuan hartu beharreko beste batzuk:

Dirulaguntza jaso dezakeen gastu bakoitzaren zenbatekoa, banan-banan hartuta, 18.000 eurotik gorakoa bada –ekipamendu-ondasunen horniduraren kasuan edo aholkularitzako zein laguntza teknikoko enpresen zerbitzuen kasuan–, onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dizkie hornitzaileei dena delako zerbitzua edo ondasuna jasotzeko konpromisoa bere gain hartu baino lehen, salbu,



## NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

dirulaguntza jasotzekoak diren gastuen ezaugarri bereziak direla-eta, merkatuan hornidura edo zerbitzu hori egin dezaketen behar adina entitaterik ez bada edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Aurkeztutako eskaintzen artean bat hautatzeko, eragimen eta ekonomia printzipioei egin behar zaie men, eta eskaintzarik merkeena hautatzen ez bada, memoria batean berriaz justifikatu behar da hartutako erabakia. Eskaintzak, bestalde, justifikazioari erantsiko zaizkio, edo, bestela, dirulaguntzaren eskabideari.

Diruz lagundu daitezkeen gastuetan, eskuratze-kostua ezin izanen da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat hartuko da deialdi honen P) letraren 2. zenbakian ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutako gastua:

BAI     EZ

Honako gastu hauek ez dira inoiz ere dirulaguntzen xedea izanen: lehen aipatutakoak.

**2. Dirulaguntzen xede izan daitezkeen gastuak egiteko epea: 2020ko irailetik 2021eko maiatzera (biak barne). Kirolerako berriazko materialaren eta COVID materialaren kasuan bakarrik epea 2021eko ekainaren 11n amaituko da.**

### M. AZPIKONTRATATZEA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

BAI     EZ

Ehuneko: Azpikontratazioa onartzen da gastuaren % 100 bitarte, baldin eta hori egiten bada irabazi asmorik gabeko Iruñeko kirol-entitateekin. Hala egiten ez bada, ez da inolaz ere onartuko azpikontratazioa.

### N. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, letra honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra:  BAI     EZ

Zenbatekoaren edo portzentajearen azalpena: onuradun gertatzen diren entitateek emandako dirulaguntza osoa erabiliko dute, guztiz edo parte batean, dirulaguntzaren xede diren jardueretan egindako gastuak finantzatzeko, inolaz ere gainditu gabe izandako defizitaren % 100. Udalaren dirulaguntzarekin bete ez den gastuaren parte onuradunak bere ekarpenarekin bete beharko du, edo kanpoko beste bitarteko batzuetatik jasotakoekin (beste dirulaguntza publikoak, parte-hartzaileen kuotak, etab.).

### Ñ. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea  BATERAGARRIA     BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Deialdi honen xede diren dirulaguntzak helburu bera duten dirulaguntzekin bateraezinak izanen dira



## NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

soilik, baldin eta horiek Iruñeko Udaleko edozein alorretatik jaso badira, honako bide hauetako bat erabilia: dirulaguntzetarako deialdiak, lankidetzak-hitzarmenak, kontratuak edo bestelako akordioak. Dirulaguntza emateko aintzat hartu diren baldintzak aldatzen badira, eta, edozein kasutan, beste administrazioek, erkidegoko, estatuko edo nazioarteko entitate publiko, pribatu edo partikularrek emaniko dirulaguntzak aldi berean eskuratzen badira, eta ez badira lehenago justifikatu, dirulaguntzak emateko ebazpena aldatzen ahalko da.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, dirulaguntza horien xedea den jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

### O. ORDAINKETA:

**1. Nola ordaindu:** Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

Dirulaguntza eman eta ordainduko da dirulaguntza emateko ebazpena eman eta koadro honetako P letran adierazitako agiri frogagarrien bidez aurkeztutako justifikazioa onetsi eta gero.

Konturako ordainketa:

Ordainketa zatikatua:

Ordainketa aurreratua:

Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta alde zuzenaren artekoa:

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketak bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

### 2. Bermeen eraketa:

BAI  EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

### P. JUSTIFIKAZIOA:

**1. Justifikatzeko modalitatea:** Ezarritako baldintzak bete eta dirulaguntza ematerakoan aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, modalitate hau erabiliko da:

Justifikazio-kontua:

Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta.

Bestelako edukirik:  BAI  EZ

Justifikazio-kontu erraztua.

Gastuen egiaztapena, moduluka (Ordenantzaren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:



Gainerako inguruabarrak:

- Kontabilitate-orrien aurkezpena (Ordenantzaren 38. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitate-orriak ofizialak direla, eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

- Beste sistemaren bat:

**Justifikazio-agiriak honako hauek izanen dira:**

a) Diruz lagundutako eta egindako jardueraren ebaluazio-memoria laburra. Hona hemen memoriaren edukia: 1.) jarduera edo proiektuaren izena; 2.) helburuak eta xedea; 3.) egindako jarduera tenporizatuak (barne hartuta -halakorik balego- berdintasuneko ekintzen borondatezko proiektuaren azalpena deialdiko H.2 puntuarekin bat), 4.) kirol- eta gizarte-eragina; 5.) balantze ekonomikoa, bertan sartuta, gastuetan, deialdi honetako L letran dirulaguntzen xede izan daitezkeen gastu-kontzeptu guztiak, eta diru-sarreretan, jardueragatik kobratutako kuotak (45 € parte hartzaile bakoitzeko) zein lehen aipatutako beste diru-sarrera mota batzuk, diruz lagundu daitezkeen gastuak ordaintzera bideratutakoak, halakorik balego; eta 6.) ekarpen dokumental laburra (A4ko kartelak, sare sozialen zein webguneen pantaila-irudiak, eta abar), deialdi honetako E letran ezarritako hedapen-betebeharrak egiaztatzeko.

b) Hala badagokio, I. eranskina "Lankidetzarako hitzarmen-eredua, kirola xede duten nortasun juridikorik gabeko entitateen Elkartea sortzeko".

c) II. eranskina "Partaidetza-moduluak Eskolaren eta monitore arduradunen arabera".

d) III. eranskina "Modulu bakoitzeko parte-hartzaileen zerrenda". II. eranskinean jasotako modulu bakoitzeko III. eranskinaren ale bat bete beharko da.

e) IV. eranskina "Orduen eta ordainketen aitorpena, begirale arduradunak sinatua". Eskolan parte hartu duen begirale bakoitzeko IV. eranskinaren ale bat bete beharko da.

f) "Kirolerako berariazko materiala" eta "COVID-19 materiala eskuak garbitzeko" erosi izana eta berdintasuneko bi ekintzez osatutako borondatezko proiektua egin izana (deialdi honetako H letran aurreikusitakoarekin bat) –halakorik egin bada– justifikatzeko, honako hauek aurkeztu beharko dira: agiri frogagarriak, indarreko legeekin bat jaulkitako fakturak, ordainagiriak, nominak, tributuak, Gizarte Segurantzaren kuotak eta gastuak frogatzeko gainerako egiaztatze baliokideak, trafiko juridikoan balioa dutenak edo indar administratiboa dutenak eta egindako eta deialdi honetan diruz laguntzekoak diren gastuen balio frogagarria dutenak (L letra), modu korrelatiboan ordenaturik zerrenda zenbakituan emandako ordena-zenbakiaren arabera. Jatorrizko agiriak edo horien kopia konpultsatuak entitate onuradunak gorde beharko ditu, gutxienez lau urtean. Aurreko gastuei dagokienez aurkeztu beharko dira, baita ere, hartzekodunei egindako ordainketen agiri frogagarriak. Ordaindu izana banku-zordunketa bidez egiaztatzea behar da, behar bezala sinatutako hartu-agiri baten bidez edo, bestela, aurkeztutako fakturak ordaindu egin direla ziurtatzen duen beste agiri bat aurkeztuz.

**Justifikatutako gastuek egindakoaren osotasunari eraginen diote, eta ez bakarrik kontzeptu**



horietan emandako dirulaguntzaren zenbatekora bitarte.

Amaitzeko "kirol bakoitzeko berariazko materiala"ren fakturretan erositako elementu bakoitza xehekatu beharko da; hartara, ez da aski izaneren kontzeptu bakarreko osoko faktura aurkeztea.

g) Faktura jaulkitzen duen entitatea BEZetik salbuetsirik badago, organo eskudunak emandako egiaztagiria aurkeztu beharko da, kasuan kasuko salbuespena egiaztatu eta horretaz fede emateko. Dirulaguntzek ezin izaneren dute gainditu, inongo kasutan, kirol-jarduera egiteak sortutako defizita. Halakorik gertatuz gero, murriztu egingen da dirulaguntzaren zenbatekoa.

**2. Justifikazioa aurkezteko epemuga:**

aurreko atalean adierazitako agiri frogagarriak dirulaguntzaren eskabidearekin batera aurkeztu beharko dira; izan ere, deialdi honek diruz laguntzen dituen jarduerak dagoeneko eginak egonen dira G letran aurreikusitako eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan.

**Q. DIRUA ITZULARAZTEKO ARRAZOIAK:**

Zilegi izaneren da hala jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 45. artikuluan eta letra honetan aurreikusitako gainerako kasuetan ageri diren itzularazteko arrazoiak ukitzen badu onuraduna.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak:  BAI  EZ

Kontuan harturik dirulaguntzen zenbatekoak ezin izaneren duela inola ere gainditu onuradunek egin beharreko jardueren kostua –ez berez, ezta beste hainbat dirulaguntza edo diru-sarrera gehituta ere, Udalak berak edo naziko zein nazioarteko beste edozein administrazio zein ente publiko edo pribatuk edota beste edozein partikularrek emana delarik–, kasuan kasuko onuradunak dagozkion kopuruak itzuli beharko ditu, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoarekin bat.

Honako egoera hauetan zilegi izaneren da hala jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina:

a) Dirulaguntza zertarako eman eta horren xedea betetzen ez bada.

b) Dirulaguntzak eskuratzea eskatutako baldintzak bete gabe, betiere onuradunei egozten ahal zaizkien zioak direla medio.

c) Jasotako funtsen erabilera justifikatzeko betebeharra ez betetzea.

d) Beste dirulaguntzaren bat aldi berean jasotzea, horiek bateragarriak diren kasuetan izan ezik.

e) Onuradunek jaso dituzten dirulaguntza bateragarriek egin beharreko jardueren kostuaren muga gainditzen badute, muga hori zenbatean gainditu eta hainbestean.

f) Dirulaguntzak emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatu edo ez betetzea.

g) Oinarri honetan aipatzen diren egiaztapenei oztopoak jartzea edo horiek egiten ez uztea. Dirulaguntza itzularazteko ebazpena organo emaileak emanen du, behin espedientea instruitu eta gero, betiere aplikagarriak diren lege orokorrekin bat. Itzuli beharreko kopuruak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira, eta, horiek kobratzeko, diru-bilketarako indarra duten arauetan xedatutakoa aplikatuko da.

**R. ERREKURTSOAK:**



## NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertzeko errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

### S. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

**S-1. Dirulaguntzen deialdi honen xede den kirol jardunari aplikagarria zaion ezein arau ofizial berezi indarrean sartuz gero, betiere hori COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiaren ondoriozkoa bada, kontuan hartu ahal izanen dira honako inguruabar berezi hauek:**

- **B.3 eta H.1.1. puntuetan adierazitako 8 hilabeteko jarduerarako 45 €-ko erreferentziako diru-sarrera murriztea, zenbatekoa jarduera benetan gauzatu den aldiaren arabera hainbanatuta, betiere aldi hori 8 hilabetekoa baino laburragoa izan bada. Erreferentziako diru-sarrera doitzeko aukera hori posible izanen da soilik, baldin eta entitateak aurkeztutako gastu-balantzean aintzat hartzen bada, dirulaguntzaren xede diren gastu-kontzeptuen atalean, jarduerak etetearen edo denbora jakin batean ez egitearen ondoriozko gastu-murrizketa.**
- **"Emandako eskola-orduak" kalkulatzeko formularen (deialdi honetako H.1.1.2 puntua) modulu bakoitzerako aurreikusitako 96 orduko balioa murriztea, hori hainbanatuta denboraldian batez beste eman diren benetako orduen arabera, eta denboraldian implementatutako modulu guztiak erreferentzia gisa harturik. 96 orduko balio hori doitzeko aukera izanen da soilik, implementatutako modulu guztiak batuta batez beste egiaz emandako orduak 96ra iristen ez direnean.**

### T. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

- |  |
|--|
| <input checked="" type="checkbox"/> I. ERANSKINA. Lankidetzarako hitzarmen-eredua, kirola xede duten nortasun juridikorik gabeko entitateen Elkartea bat sortzeko. |
| <input checked="" type="checkbox"/> II. ERANSKINA. Partaidetza-moduluak, eskolaren eta begirale arduradunen arabera.   |
| <input checked="" type="checkbox"/> III. ERANSKINA. Modulu bakoitzeko parte-hartzaileen zerrenda.  |
| <input checked="" type="checkbox"/> IV. ERANSKINA. Orduen eta ordainketaren aitortpena, begirale arduradunak sinatua.  |

**OHAR GARRANTZITSUA:** *Agiri hau erabat ongi ikusteko, gomendagarria da PDF formatuan deskargatu eta irakurtzea.*